

12. AKTA

2002ko azaroaren 28an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

LEKUA: Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean.
DATA: Bi mila eta biko azaroaren hogeita zortzian.
ETORRIAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga j.
Rikardo del Pozo Gil de Albornos j.
Obdu Lorenzo de Dios a.
Lehendakaria: Joan Karlos Alduntzin jauna.

Lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian bildu dira goian aipatu diren jaun zinegotziak, Joseba Belaustegi Cuesta jaun Idazkaria bertan delarik, Gobernu Batzordea ospatzeko horretarako egindako deialdiaren arabera. Ez du ezin etorria adierazi Anjel Ouviaña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 11:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta, 11.a, 2002ko urriaren 28koa.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, bertako zinegotziek aho batez erabaki dute bere osoan ontzat eman eta dagokion Akta Liburuan transkribatzea.

OGASUNA

2.- 11/02 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea 11/02 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, HIRUREHUN ETA BERROGEI MILA HIRUREHUN ETA BOST EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMOREN kantitatekoa, hurrengo oharrarekin: 2.105, 2.106, 2.107 eta 2.108 zenbakiak dituzten fakturen kontzeptua “iturgintzarako lokala lortzea” jartzen du eta “pinturarako lokala lortzea” izan behar du.

KONTRATAZIOA

3.- “Trintxerpeko Karmengo Amaren Eskoletan leiho handiak jartzea” obraren 2. eta azkeneko ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Obra eta Zerbitzuetako Ikuskariburuak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ONTZAT EMATEA hurrengo ziurtagiria:

Zka: 2 eta azkena.

Obra: “Trintxerpeko Karmengo Amaren Eskoletan leiho handiak jartzea”.

CARPINTERÍA DE ALUMINIO TRINTXERPE enpresaren alde.

Zenbatekoa: BOST MILA HIRUREHUN ETA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO (5.319.54 euro).

Karguaren partida: **1.09.00.622.422.00.01**

4.- “Arizabalo Jauregia Berrabiltzea-San Joan, 19” obraren 9. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo zinegotzia:

Zka. 9.

Obra: “Arizabalo Jauregia Berrabiltzea-San Joan, 19”.

Obraren zuzendariak: Jose M^a Irazusta j. (Udal Aparejadorea) eta Iñaki Ormazabal j. (Udal Arkitektoa).

TECPROPASA EUSKADI, S.A. (TEUSA) Y CONSTRUCCIONES J. URRACA, S.A., (U.T.E. ARIZABALO) enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HEMEZORTZI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMO (18.168,92 euro).

Karguaren disposamendua: D-1624/02.

5.- “Rikardo Arrillagan igogailua jarri eta Trintxerpen I.S.M.-ren inguruetan urbanizazio osagarria” obraren 5. eta 6. (azkena) ziurtagiriak.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiriak.

Zka.: 5. eta 6.a (azkena).

Obra: “Rikardo Arrillagan igogailua jarri eta Trintxerpen I.S.M.-ren inguruetan urbanizazio osagarria”.

Obraren zuzendaria: Rodrigo Milla Azkona j. (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES ERGA S.L.enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoak: ZAZPI MILA ETA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (7.361,65 euro) eta HOGEITA SEI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (26.494,60 euro) hurrenez

hurren.Karguaren disposamenduak: 5 zenbakiarena: D-494/00 eta 6.arenak: A-1816/99 eta A-1791/00.

6.- “Pasai Antxoko Azoka Berrabiltzea” obraren 3. ziuertagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuertagiria:

Zka.: 3.

Obra: “Pasai Antxoko Azoka Berrabiltzea”.

Obra-zuzendaritza: Joan Kruz Altuna j., Eduardo Montoya j. eta Jaime Vergel j.

ERAILAN S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (377.783,88 euro).

Karguaren disposamenduak: D-464/01 eta D-465/01.

7.- “Azkuene 42an murruen eta eskaileren konponketa eta gotortzea (erremate-lanak)” obraren ziuertagiri bakarra.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuertagiria:

Obra: “Azkuene 42an murruen eta eskaileren konponketa eta gotortzea (erremate-lanak)”.

Obra-zuzendaritza: Fernando Pérez de Laka (Bide, Kanal eta Portuetako Injinerua) (KEMEN, Estudios y Proyectos, S.L.) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea).

PROBISA TECNOLOGIA Y CONSTRUCCION, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGAIITA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI (46.858 euro).

Karguaren disposamenduak: D-1142/02 eta D-1143/02.

8.- “Merkatuaren inguruko Antxo Iparra 01 Hiriguneko Berrurbanizazioa” obraren 4. zka. daraman ziuertagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuertagiria:

Zka.: 4.

Obra: “Merkatuaren inguruko Antxo Iparra 01 Hiriguneko Berrurbanizazioa”.

Obra-zuzendaritza: Jose M^a Irazusta j. (Udal Aparejadorea), Igor Urrutia j. (ASMATU, S.L.) eta Joan Karlos Lapazaran j. (Arkitektoa).

URBYCOLAN, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HEMEZORTZI MILA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (58.074,67 euro).
AD-745/02-ren kargura.

9.- “Gudarien plaza Urbanizatzeko Proiektua” obraren 3. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 3.

Obra: “Gudarien plaza Urbanizatzeko Proiektua”.

Obra-zuzendaritza: Agustin Errea Oiarzabal j. (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea).

PROBISA TECNOLOGIA Y CONSTRUCCION, S.A.enpresaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (47.396,49 euro).

Karguaren disposamendua: D-398/02.

GIZARTE ZERBITZUAK

10.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2002ko irailaren 4an eta 2002ko azaroaren 12an aurkeztutako proposamenak, 1/02 zka. proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzeaz, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- 1/02 proposamenari dagozkion laguntzak aldatzea, Gobernu Batzorde honek onartuak 2002ko otsailaren 25ean eta adierazten diren motiboak direla eta, bertan seinatzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Gizarte Larrialdiko partidara itzultzea aipatu zenbatekoak.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzako Sailari jakinaraztea.

GAZTERIA ETA KIROLAK

11.- A Pabela Productions-i subentzia.

Mahai gainean geratu da, zeren eta espedientean ez baita ageri Gazteria eta Kirolak Sailaren txosten teknikoa, ezta gastuen justifikaziorik ere, ezta jardueraren kostuaz subentzioaren %50eko muga gainditzen duenarena ere eta ezta subentzioari dagokion gastuaren kontrol efektiboaz bermerik ere.

ONDARE ERREKLAMAZIOAK

12.- Ondare erantzukizunaz hainbat erreklamazio.

H) Miguel Angel Martín jaunaren erreklamazioa.

Ikusirik MIGUEL ANGEL MARTIN AMIANO jaunak egindako erreklamazioa 2002ko ekainaren 29an 9195 BTN matrikula duen bere autoan izandako kalteak direla eta Pasai San Pedroko Herriko Jaietan goitiberen jaitsiera ospatzen ari zirela.

Ikusirik Udaltzaingoak 2002ko uztailaren 11an luzatutako txostena gertatuen berri eman duela.

Ikusirik argazkiak non ageri diren aurreko ezkerreko hegalean egindako kalteak eta Miguel Angel Martín Amianok kreditaturik kalteak izan dituen ibilgailuaren jabea dela eta hauen zenbatekoa ere bai, hots, 210 euro, Gobernubatzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- MIGUEL ANGEL MARTÍN AMIANO jaunaren ondare erantzukizun erreklamazioa onartzea 2002ko ekainaren 29an 9195 BTN matrikula duen bere autoan izandako kalteak direla eta Pasai San Pedroko Herriko Jaietan goitiberen jaitsiera ospatzen ari zirela, kreditatua ulertzen delako kalteen eta Udal Zerbitzuaren funtzionamenduaren arteko lotunea eta, zehazki, Herriko Jaien ospakizuna, non antolatu baitziren goitiberen jaitsiera.

BIGARREN.- MIGUEL ANGEL MARTIN AMIANO jaunari 210 euro ordaintzea izan dituen kalteen ordainetan eta bere aseguruak ordaindu ez dizkionak.

HIRUGARREN.- Hau guztia 01.224.121.0001 partidaren kargura.

K) Jesus Manuel Sayans Santamaria jaunaren erreklamazioa.

Ikusirik JESUS MANUEL SAYANS SANTAMARÍA jaunak 2002ko uztailaren 10eko erregistro datan egindako erreklamazioa, non azaltzen duen urte horretako ekainaren 24an 24 orduak ziren inguruan, Ulia etorbideko 5ean dagoen oinezkoen pasabidean irrist egin eta erori egin zela ligamenduak eta peronea hautsiz, eta alegatuz bera erori bazen lurra irristakor zegoelako izan zela, zeren eta aipatu pasabideko pintura ez delako egokia euria egiten duenean.

Ikusirik halaber erreklamatuak 2002ko azaroaren 6an aurkeztu idazkia non zehazten duen 6.300 euro gehi gastuen erreklamazioa.

Kontuan izanik 2002ko abuztuaren 1ean jakinarazi zitzaizkion erreklamatuari Herri Administrazioen Ondare Erantzukizun gainean Prozedurak erregulatzen dituen 429/1993 Erret Dekretuko 6. artikuluan aurreikusten diren dokumentazio eta betebeharrak eta baita ere txosten polizialak, ezbeharrak gertatu zen lekuko argazkiak, bertako lekuko zinezko deklarazioak eskatzeko posibilitatea eta froga proposatzeko posibilitatea eta zein medioz baliatuko den, eta erreklamatuak ez du erreklamazioari buruz froga bat bera ere ekarri.

Ikusirik Udaltzaingoak 2002ko abuztuaren 8an begiz egindako inspezio akta non esaten den oinezkoen pasabidea kondizio onetan aurkitzen dela, aipatu oinezkoen pasabidea ez dagoela pinturarekin eginda irrist aurkako orearekin baizik.

Kontuan izanik, gainera, Udaltzaingoak proba bat egin zuela pasabidea bustia aurkitzen zenean, frogatu ahal izan dela bertako pinturak ez duela irrist egiteko arriskurik erakusten, ez dela frogatu ez erortzea eta gutxiago zehabidearen egoera arriskutsua. Alderantziz, espedientean agertzen da pinturaren irrist aurkako froga dokumentala.

Honela bada, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- JESÚS MANUEL SAYANS SANTAMARÍA jaunak egindako erreklamazioa gaitzestea zeren eta ez baitira izan frogatuak gertatuak ezta kalte erreklamatuaren eta zerbitzuaren funtzionamenduaren arteko lotune kausala ere.

BIGARREN.- Ebazpen honen berri erreklamatzailari ematea legozkiokeen errekurtsok aditzera emanez.

J) Mari Mar Etxeberria Carnicero andrearen erreklamazioa.

Ikusirik MARI MAR ETXEBERRIA CARNICERO andreak 2002ko maiatzaren 28ko erregistro datan egindako erreklamazioa non aditzera ematen duen 2002ko maiatzaren 21ean Mendiola bideko 3aren parean, Ulia etorbideko tramuan, obrak egiten ari zirelarik, zorua asfaltatu gabe zegoelako, erreklamatzailak irrist egin eta tibia eta peronea hautsi zituela.

Kontuan izanik 2002ko ekainaren 14an erreklamatzailak hirurogei mila eurotan (60.000 euro) koantifikatu duela kalteordaina.

Kontuan izanik erreklamatzailak ez duela frogatu erortzea, ez duela lekukorik aurkeztu, ez dituela kalteak eta lesioak dokumentatu eta frogatu eta ez duela justifikatu eskaturiko erreklamazioa.

Kontuan izanik espedientean agertzen den enpresa eraikitzailearen txostenaren arabera ETXEBERRIA CARNICERO andrea izan daitekeela maiatzeko egun batean, noiz zehaztu gabe, lanaldiaren barruan, bialean erori zena eta honen zorua behar bezala zabaldu eta konpaktatutako material granularreko oinarri-geruzan aurkitzen zen eta bizkarrean pisu handiko motxila zeraman berak.

Ikusirik aipatu txostena CONSTRUCCIONES DUMBOA S.A.enpresak egindakoa 2002ko uztailaren 17an, aipatu zirkunstantzien eta kidekoen berri emanez obrako arduradunek esandakoari kasurik egin gabe bizilagunek berek obran erretiratzen zuten hesiari buruz.

Kontuan izanik, dena dela, oinezkoek beti eduki dutela 22. zenbakiaren aurrean dagoen eskaileraren tramu bat prest, zuzenean Azkuene kalera ematen duena, obra zeharkatu beharrik gabe.

Kontuan izanik, beraz, ez zegoela inola ere lotune kausalik erreklamatzailak alegatu lesioaren eta Udal Zerbitzuaren funtzionamenduaren artean, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- MARI MAR ETXEERRIA CARNICERO ANDREAK egindako erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri ematea legozkiokeen errekurtsokin batera.

K) José García Cañamero.

Ikusirik JOSÉ GARCÍA CAÑAMERO jaunak egindako erreklamazioa NA-5433-AZ matrikula duen bere jabegoko ibilgailuari egindako kalteak direla eta, Pasai Antxoko Luzuriagan egokitutako parkinean espazioak mugatzeko jarritako burdinazko barra batekin.

Ikusirik Udaltzaingoak 2002ko uztailaren 23an luzatutako txostena.

Frogatutzat emanik ibilgailuan eragindako kalteak Udaltzaingoaren txostenari erantsitako argazkiekin eta baita erreklamazioa ere.

Kreditatutzat emanik eragindako kalteen zenbatekoa, hots, hirurehun eta hirurogeita hiru euro eta hogeita hamaika zentimokoa (363,31 euro) Carrocerías Fernando, C.B. enpresak luzatutako fakturaren bidez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- JOSÉ GARCÍA CAÑAMERO jaunari HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA HOGEITA HAMAIKA ZENTIMO (363,31 euro) abonatzea Kutxako 2101 0061 58 0002910727 k/kan, indarreango aurrekontuko 01.224.121.0001 partidaren kargura.

BIGARREN.- Ebazpen honen berri ematea legezkiokoen errekurtsioekin.

F) Julio Vadillo Rosa jaunaren erreklamazioa.

Ikusirik JULIO VADILLO ROSA jaunak 2002ko azaroaren 12an Udaltzaingoaren aurrean egindako erreklamazioa, non eskatzen duen 1011-BKL matrikula duen bere jabegoko SEAT CORDOBA markako ibilgailuan eragindako kalteen ordaina, autoa Gruas Auto enpresak autoen udal depositora zeramanean gertatuak, zeren eta Ulia etorbidean aparkatua aurkitzen baitzen kamioien jiroa galaraziz.

Kontuan izanik Gruas Auto enpresak konstarazi duela kalteak erretiratzea baino lehenagokoak zirela luzaturiko fakturan.

Frogatutzat emanik halaber erreklamatzailleak alegaturiko kalteak autoaren trasladoa baino lehenagokoak direla garabiaren presentzia eskatu zuten agenteek aitortutakoaren arabera begiz egindako inspezio-aktaren bidez, non adierazten den nola egin zen trasladoa, eta baita garabiak autoa erretiratu zuenean zituen kalteen balorazioa ere, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- JULIO VADILLO ROSA jaunak egindako erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

HIRIGINTZA

13.- Obra-lizentzia, Ulia etorbidea, 12-14.

Jose Antonio Escobedo Pérez jaunak 2002-06-25ko datan Ulía Etorbidea 12-14ko behe solairuan pareta eta lurraren berritze lanak egiteko OBRA TXIKIA EGITEKO LIZENTZIA eskatu du.

2002ko irailaren 4an jakinarazi zitzaion dokumentazio gehigarria aurkeztu behar zuela, Udaltzaingoak urriaren 1an obra Kontrol-akta egin zuen eta bertan esaten du obrak lizentziarik gabe egiten ari zela eta eskaeran azaldu ez zituen obrak (etxebizitzatarako egokitze obrak: leihoak, jarri, fatxada nagusia aldatu, eta abar)...

Udal teknikaria aholkulariak eskatzaileak urriaren 23an aurkeztu duen dokumentazioan oinarrituz txostena egin du, eta bertan adierazten duenez, egiten ari diren obrak legez kanpokoak direla eta legeztatu ezinezkoak.

Obrak egiteko aurrekontua 4.402,2 eurokoa da.

Horiek horrela eta kontuan hartuta 1999ko uztailaren 12ko Alkatearen Dekretua, hainbat eskumen Gobernu Batzordearen gain uzten dituen, Gobernu Batzordeak aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Jose Antonio Escobedo Pérez jaunari OBRA TXIKIA LEGEZTATEKO LIZENTZIA UKATZEA; lokala etxebizitzatarako egokitu nahi du, eta Azkuene 2.08.02 "Ulía Etorbidea" Hiri Arean, behe solairuan etxebizitzatarako erabilera ez da onartzen.

BIGARRENA.- Obrak legeztatu ahal izango dira onartuta dagoen erabilerako egokitzen badira. Horretarako bi hilabeteko epea izango du ebazpen hau jasotzen duenetik, bestela egindako obrak botatzeko agindua emango dugu.

HIRUGARRENA.- Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea, honen kontra jar ditzakeen errekurtsioen berri emanez.

14.- Obra-lizentzia, San Joan k., 51.

San Juan 51eko jabekideek fatxada konpontzeko obrak bukatu ondoren, lizentzian eskatutako dokumentazio gehigarria aurkeztu zuten, eta ekimen urbanizatzailerak egiteagatik dirulaguntza eskatu zuten.

Udal Teknikari aholkulariak ikuspen bisita egin ondoren aldeko txostenak egin du.

Obrak egiteko aurrekontua 5.572,22 eurokoa izan zen, eta lizentzian aipatzen zen eraikinaren kanpo aldeko elementu komunei zegokiela, eta halabera, gune historikoa birgaitzeko obra zela, zegokion hobariak ezarri ahal izateko.

Beraz, Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKI DU

LEHENA.- San Juan 51ko jabekideei ekimen urbanizatzailerengatik eskatutako dirulaguntza ematea, fatxada konpontzeko obrak ondo bukatu eta gainontzeko baldintzak bete baitituzte.

BIGARRENA.-Eraikuntza eta Obrei buruzko zergagatik likidatu zaiona 139,30 euro izan da. Beraz, onartu behar zaion dirulaguntza kopuru horren % 50 da, 69,95 eurokoa alegia, eta ondorengo partidatik atera behar da: A 1534/02.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunei jakinarazi eta honen airkako errekurtsoen berri eman.

15.- E.U. Tiorreatze, 1-2 Konpentsazio Proiektuaren onarpen akabaila.

Joan Mari Belokik, Iruresoro, S.L.-ren ordezkaritzan, 2002ko azaroaren 14an sarrera-data duelarik, Torreatze 1 eta 2 Aktuazio Unitatean Konpentsazio Proiektuari osagarria zaion dokumentazioa aurkeztu du. Lur urbanizatuaren %10ekoaren zesioaren estimazio ekonomikoa, Iruresoro, S.L.-k eginga, 69.000 eurokoa da.

Udal teknikari aholkulariak zesioaren probetxamenduaren %10aren balorazio ekonomikoaren aldeko txostenak luzatu ditu eta baita Konpentsazio Proiektuaren onarpen akabailaren egokieraren alde.

Ikusirik Hirigintz Kudeaketaren Arautegiko 174 artikulua, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Behin betiko onartzea Torreatze 1-2 exekuzio unitatearen Konpentsazio Proiektua, Iruresoso, S.L.-k aurkeztua, zeren eta informazio publikoaren denboran ez baita alegaziorik aurkeztu.

2 zka. duen partzelaren eranste eta binkulazio erregistralaren eskriturak aurkeztu beharko dira, 146,50 m²-koa, Allo etxearen A finka urbanoarekin, ondorioz ateratako partzelak eraikin eskubiderik sortuko ez duelarik eta partzela binkulatuentzat indarreango legislazio urbanistikoan ezarrita dauden baldintzekin.

BIGARREN.- Ontzat ematea zesioaren probetxamenduaren %10aren balorazio modifikatua, 69.000 eurotan estimatua, zeren eta udalak aurrez egindako estimazioei bai egokitzen baitzaie eta udal diruzaintzan sartzea errekeritzea.

HIRUGARREN.- Konpentsazio proiektua jabetzaren erregistroan inskribatzea, espreski eskatuz partzela pribatuak likidazioaren kontua ordaintzeko afektatzea, kontua 76.076,25 eurokoa izanik, hau dena Hirigintz Kudeaketaren Arautegiko 126 artikulua araber.

LAUGARREN.- Akordio honen berri Gipuzkoako Buletin Ofizialean publikatzea.

BOSGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legezkiekeen errekurtsioekin.

16.- Zamatete 02 Velasco E.U.ren birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzea.

Andres Martin Mateosek "Villalmanzo, S.A."ren izenean eta Begoña eta Concepción Velasco Aboitizek hurrengo arazoak aurkeztu dituzte: a) Pasaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioak ustez ez direla bete zeren eta Zamatete 04. Estrataldearen Exekuzio Unitatean 4 urteko exekuzio-epa seinalatzen baitzen eta U.E.U. Zamatete 02. Partzelak 1, 2, 4 Velasco-ren Konpentsazio Proiektua baino lehenago onartzea; b) interesatuei eta ordenazioak afektatuei ez notifikatu izana; c) aportatutako finen balorazioari buruzko kriterioekin ados ez egotea; d) urbanizazio kargen erdiz libreko probetxamenduaren %10aren zesioarekin ados ez egotea; e) proiektuan egindako zortasunen baloraziorik ez egitearekin ados ez egotea; f) ekipamenduko E1 partzelari buruzko alegazioa.

Eta Itsas Gizonen Institutu Politeknikoak alegazio bat aurkeztu du ubikatua aurkitzen den finkaren mugekin agian istiluak izan daitezkeela eta, birpartzelazioaren proiektuko edukiaren aurrean eta argibideak eskatu ditu Institutuaren eta inguruko finen arteko terrenoen arteko mugak direla eta.

Institutuak aportatutako dokumentazioaren arabera badirudi Institutu Politeknikoaren finkaren gutxi gorabeherako 302 m²-ko zati bat birpartzelazio proiektuko Bat partzelaren barruan sartzen dela ondorioztatzen dela, bere atze aldean.

Manuel Blasco García jaun abokatuak informatu dituelarik alegazioak.

Ikusirik Hirigintz Kudeaketako Arautegiko 110 eta hurrengo artikulua, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ondoren esango den neurrian planteaturiko alegazioak onetsi eta gaitzestea:

Lehenengo Alegazioa.- Espedientean agertzeko elkartearen legitimazioari buruz ari da, kuestio hau ez da eztabaidatzen eta ez du beste erantzunik merezi.

Bigarren Alegazioa.- “Zamatete 04 Estrataldea” exekuzio unitateari buruz Arau Subsidiarioak ez betetzeaz.

Pasaiako Planeamenduko AASSen borondateak, hots, exekuzio-unitate honen garapena 04. Estrataldearekin erlazionatzeak, ez du inola ere tramitazioan Birpartzelazio Proiektuko edukia baliogabetzen. Bestalde, 04 Exekuzio Unitatearen fitxaren erreferentzian errataren bat dagoela dirudi, hots, kontestuaeren interpretazioan dirudienez esan nahi baitu “*beti ere aurretik onartua egongo bada U.E. Zamatete 02, parcelas 1, 2, 4, y Velasco konpentsazio proiektua*”. Beste interpretazioaren bat ez litzateke logikoa, zeren eta hau izan bada Arauen borondatea, U.E. 04-ren aurretiazko garapena U.E. 02 Zamatete-Velascoren fitxan sartuko baitzen. Honetan sakontzen du “se encuentre aprobado...” aipamenak, maskulinoan (el proyecto de compensación), eta Unidad de ejecución (04.Estrataldea)-ri buruz, generoz femeninoa, “se desarrollará” aipamena egiten du.

Beraz, interpretazio logiko bakarra hemen seinalatzen dena da, errata zuzenduz.

Atal honetan egiten den aipamena goitegien exekuzioaren “la dificultad técnica” delakoari buruz, ez da birpartzelazioaren proiektuaren edukien parte eta inola ere ez du baliogabetzen, eta soluzio teknikoa dagokion proiektu fakultatiboak eman beharko du hain konplexua den goitegiak jasotzeari erantzunak eman beharko dizkionak eta partzialki jardueraz okupatuak dauden eraikinen gainean egingo da. Esan beharko da arazo hau jada planteatu zutela jabeek 3399/96 zka. daraman liskar auzi administratiboko errekurtsioan, zeina Arau Subsidiarioak behin betiko onartzearen aurka ezarri baitzuten, errekurtsioa arbuiatua izan zelarik epaitegian, bertako bigarren fundamentu juridikoan

deklaratzen delarik *“txosten perizialetik segitzen da arrazoi sakonik ez dela aurkitzen ordenazioaren bideragarritasun teknikoa ez dela posible pentsatzeko, aitzitik, planeamenduak arbitratzen ditu behar hainbat xedapen tekniko zonalde hau degradazio prozesuari kendutako eremuen barruan jartzen saiatzeko”*.

Honela bada, alegazio hau gaitzestea erabaki da.

Hirugarren Alegazioa.- Proiektua interesatuei eta afektatuei jakinaraztea.

Gaur gaurkoz, Udalak pertsonalki jakinarazi die aktuazioak afektatu guztiei birpartzelazio proiektuaren tramitazioa, audientzia emanaz, iragarkia Gipuzkoako Buletin ofizialean publikatuz azken maiatzaren 13an eta eguneroko prentsan ere sartuz, eta beraz ulertu behar da alegazio honek gaur ez duela sentidurik.

Laugarren Alegazioa.- Aportaturiko finkek baloratzeko kriterioez adostasunik ez.

Birpartzelazio proiektuak jabeen eskubideak baloratzen ditu aportaturiko finken azaleraren arabera. Honela erabakitzen du 1976ko LS-ren Testu bateratuko 99.1 a) artikulua. Memoriako 10. orrialdak dioen "jabeen eskubidea izango da beren finken balio urbanistikoaren proportziokoa" aipamena ez da inola ere aurrekoarekin bateraezina, zeren eta alde batetik bertako pabilioiei buruz, proiektuak ez du esleipen berririk egiten, baizik eta lehengoak mantentzen baititu eta finka lukratibo berriei buruz, banaketa 99.1 artikuluko aipatutako kriterioaren arabera egiten du eta garajearen erabilpenari koefiziente bat jarritz, Memoriako 13 eta 14. orrialdeetan justifikatzen dena.

Gainerakoan ez da zirkunstantzia gehiagorik ikusten, ubikazioari edota beste zernahiri buruz, aportaturiko finka batzuei eta besteei balorazio diferentea egiteko. Gainera, dauden pabilioen gaurko jabeen alterazioak interferitu egingo zituen gaurko alokairu-harremanak eta ez da egokitzen eman. Beraz, aspektu hauetan guztietan proiektua zuzentzat eman da. Halaber esan ez dela arauzkotzat ikusten proiektuari sailkapen plano bat eta aportaturiko finken balorazioa eranstea, nahi hau 82.2 RGU artikuluan oinarritzen duelarik, prezeptu hau baliogabetua izan baitzen otsailaren 26ko 304/1993 Dekretuaren bidez (1993ko martxoaren 18ko BOE 66. zenbakia).

Atal honetan alegatzaileak seinatu du aportaturiko finken benetako neurketak ez dituela ezagutzen, eta plano topografiko baten bidez justifikatu behar direla. Honi buruz esan publikoari erakutsi zitzaion birpartzelazio-proiektua aportaturiko finken benetako planoaz egindako benetako neurketan oinarritzen dela eta egin berria den topografia digitalizatu batetik abiatutako edukierak frogatuz egin dela, diferentziak kontuan ez hartzeko modukoak direlarik tramitazioko dokumentuan agertzen direnekiko. Hala ere, sar daiteke proiektuan aportaturiko finken plano topografiko berri bat azkeneko neurketa honen arabera.

Honela bada, erabaki da alegazio hau gaitzestea aipamen topografikoari dagokiona ezik.

Bosgarren Alegazioa.- Probetxamendu ertainaren % 10eko zesioa.

Idazkian adierazten dutenez, agenteek ez dute kontsideratzen aplikatzekoa denik Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 20ko 11/1998 Legeak dioena, zoru eta balorazioen erregimenaren 6/1998 Legeko 14.1 artikulua baizik.

Geroago Auzitegi Konstituzionalak, otsailaren 27ko 54/2002 bere epaian, Eusko Jaurlaritzaren aipatu Legeko 1 artikulua konstituzioaren aurkako deklaratu zuen, “urbanizazioz kontsolidatutako hiri zoruaren jabeentzat probetxamendu lukratiboaren % 10aren zesioa obligaziotzat ezartzen den neurrian”, baina ez edozein eratako hiri zoruarentzat.

Bere Bosgarren fundamentu juridikoan epaiak aurrekari legislatiboak aipatuz dio “exekuzio unitateetan sartuta ez dagoen hiri-zoruaren jabeek dagokie probetxamendu urbanistiko guztia”, exekuzio unitateetan sartua dagoen zoruarekin gertatzen ez den bezala.

Bestalde, apirilaren 13ko 6/1998 Legeak ez ditu obligatzen urbanizazioaz kontsolidatutako hiri-zoruaren jabeak probetxamendu lukratiboa egitera -arauaren 1 atala- baina bai behartzen ditu “urbanizazio kontsolidatua ez duen” hiri zoruaren jabeak.

Birpartzelazio proiektu honetan hasitako aktuazioa exekuzio-unitatea da, non erabaki behar den etekinak eta kargak erdibana banatzea eta urbanizatzea, Memoriak erreferentzia egiten duelarik birpartzelazioa jabeen urbanizazio-obligazioa dela, 500.000 euro baino gehiagoko inportez, kontzeptu honen arabera karga urbanistikoak ezarriz finkei.

Aurrekotik segitzen da Udalaren aldeko probetxamendu lukratiboaren % 10aren zesioa mantendu egin behar dela, urbanizatzeko kargatik libre, birpartzelazio-proiektuan kontenplatua dagoena.

Ondorioz, alegazio hau gaitzetsi egin da.

Seigarren Alegazioa.- Seigarren alegazioak zortasun jakin batzuen balorazioa erreklamatzeko du, birpartzelazioan egindakoak eta proiektuaren ustetan ordaintzekoak ez direnak.

Hasteko esan alegazio hau gaizki formulatua dagoela, “predio dominatzaileentzat kalteordaina” eskatzen baita, hau da, erabat ilogikoa den zerbait beren alde dutenentzat hain zuzen ere.

Bigarren lekuan esan 1976ko Zoru Legeko TBko 111 artikulua, alegazioetan aipatzen dena, derogaturik aurkitzen da, 32LS 1998 artikulua ordezkatu duelako eta arau honen erreferentzia da “kontzesio administratiboaren balorazioa eta higigaitzen gaineko erret eskubideak eraikuntza, modifikazio edo iraungitzearen ondorioetarako eta desjebetzeko arautegia eta gainerako legeria, honen arabera egin behar direlarik balorazioak. Arau honek gure ustez ez du erreferentzia hemen planteatzen den kuestioa, hots, birpartzelazio proiektu batean zortasun urbanistikoak sortzea. Aitzitik, aplikatu behar den araua da Hirigintz Kudeaketaren Arautegiko 99. artikulua, bereziki arautzen baititu “birpartzelazioaren akordioarekin iraungita geratu behar duten zortasunak eta kargak”, eta ez du aipamenik egiten zortasunak sortzeaz. Arau hau kokatzen da III Titulua, III Kapituluak, 1. Sekzioa delakoan, birpartzelazioa arautzen duten “eskubideen definizioa”.

Ondoriozko C4 partzelan sortutako oinezkoen pasabidearen zortasuna aipatzen du hain zuzen ere alegazioak, Esnabide kalearen 42 eta 50 murreren eta eskaileren artean, ondoriozko L-2 partzelara sartu ahal izateko eta goitegiko sabaipera, alegatzailearen ustetan karga hau baloratu behar delarik, zeinen predio zerbitzaria ondoriozko C4 partzela baita.

Era berean, 760 zka. daraman erregistro finkaren bidez Esnabide kalean dauden etxebizitzetara autoak eta oinezkoak joateko sortutako zortasuna, eta baita ere ondoriozko C3 eta C4 partzeletan eraiki behar diren garajeetara autoak joateko sarrera eta C2 partzelaren parte bat, zeinen predio zerbitzaria C5 partzela baita.

Gai honi buruz esan beharra dago kasu guztietan hirigintz ordenazioetako zortasun arketipikoak direla, non erabat ohikoa den sarbideetarako erabilpen publikoa duten zortasunak sortzea edo espazio publikoak jartzea, probetxamendu lukratiboak dituen partzela pribatu baten inguruan grabitatzeko dutenak baina eraikinaren parte batzuen baitan limitazio honekin, hala nola sabaia forjatzea edo antzeko zerbait.

Auzitegi Gorenaren Hirigintz legeria eta jurisprudentiarentzat egoera limitatibo hauek hiri-jabetzaren “izaera estatutarioaren” propioak dira, zeinen bidez “jabetzaren eskubidearen fakultateak aipatu (zoru) legean ezartzen diren mugen barruan eta bertako betebeharrak konplutuz jarduten baitira edota beraren indarrez, ordenazio-planekin, predioen sailkapen eta hirigintz kalifikazioaren arabera, muga eta betebeharrak hutsengatik.

Printzipio hau Estatuaren zoru-legeetan kontentatzen da, adibidez 1976ko Testu Bateratuko 87. artikuluan eta orainsuago apirilaren 13ko 6/1998 Legeko 2. artikuluan.

Kalteordainen eskubiderik ezaren printzipio orokorra erruz aipatzen du jurisprudentziak eta bereziki planeamenduaren modifikazioetan eta erdibanaketaren objektu ezin izan daitezkeen jabetza eskubidearen binkulazioetan.

Eredu bezala aipa dezakegu 1992ko apirilaren 14ko epaia – RJ 1992/3422 partzela baten sailkapenaren alterazioari buruzkoa; beste bat 1992ko apirilaren 7koa – RJ 1985/1019, non eskatzen baitzen kalteordaina erabilpen edota intentsitate murriztapenagatik.

Azkeneko honetan zera baieztatzen da: *“hiri jabea beste jabe batzuekin interdependentzian aurkitzen da (bereziki poligino berean edota aktuazio-unitate berean aurkitzen direnekin) ordenamendu urbanistikoari funtsezkoak zaizkion obligazio edo kargak betetzeko beharrezko eta nahitaezko korrelazioa dagoelako (onura eta kargak erdibanatzea) eta onura eta kargen banaketa ekitatiboa lortzeko legeak ezarritako tekniken bidez konpentsazioa ezinezkoa bada (bataz besteko probetxamendua, birpartzelazioa etab.) bakarrik jo daiteke prozedura berezi honetara, kontuan izanik kaltea benetakoa eta momentukoa izateko, hau da, indemnizagarria, beharrezkoa dela kalteordaina eskatzen duenak horretarako dauden legezko bide guztiak agortuak izatea, zeren eta horrela bakarrik geratuko baita kreditatua ezarritako karga edo binkulazioa banagarria izatearen izaera”*.

Balorazioa eskatzen zaien zortasunen zirkunstantziak azterturik, ikusten dugu bi kasu-tipo daudela: oinezkoak beste partzela batzuetara joateko pasabide zortasuna edota egingo diren garajeetara joateko autoen pasabidearena eta aisialdirako espazio publikoa sortzearena. Beraz erabilpen publikoko zortasunak dira edota afektatzen dituzten partzelen eta gainerakoen jabeak benefiziatzen dituztenak.

Ondoriozko C4 partzela zeinean birpartzelazio proiektuak sortu duen oinezkoen pasabide zortasuna, proiektuan besteak beste esleitu zaie Begoña eta Concepción Velasco Aboitiz andreei, zeintzuk beren egin baitute “Villalmanzo, S.A.”-k formulatu dituen alegazioen edukia. Esan nahi baita pasabide zortasun hori jasan beharra konpentsatua gertatzen dela partzelan bertan esleitu zaizkien garajeen probetxamendu lukratiboen bidez, birpartzelazioaren onura eta kargetan integratuz, ez delarik bidezkoa ekonomikoki indemnizatzea, aipatu arau urbanistiko eta jurisprudentziaren arabera. Gainera, duela urte asko oinezkoen sarbide funtzioa betetzen duen eskailera da.

Gauza bera esan daiteke ondoriozko C partzelari buruzko zortasunaz, zeinen adjudikataria Begoña Velasco Aboitiz andrea den, halaber delarik ondoriozko C4 partzelaren bidez, garajearen

probetxamendu lukratiboen bidez, eta zortasuna gainera aurreikusia baitago udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Zamatete Unitateko fitxan.

Aurreko arrazonamenduen arabera, ulertzen da birpartzelazioaren proiektuak sortu dituen zortasun guztiak hiri-jabetzaren eduki normalaren parte direla eta birpartzelazioaren ekibanaketaren prozesuarenak, tasazioa eta kalteordaina inolako jabetza ez dagozkiorarik.

Honela bada, alegazio hau gaitzestea erabaki da.

Zazpigarren Alegazioa.- Alegazio honek aipatzen du 7 zka. daraman finka aportatua dagoen eraikinaren zesio posiblea, "Proisa eraikina", Arau Subsidiarioek ordenazioz kanpo deklaratu. Birpartzelazio proiektuak egin duena da Hirigintz Kudeaketaren Arautegiko 98. artikulua betetzea, eraikinaren tasazioa egin eta balio hau jabearen aldeko behin-behineko likidazioaren kontura pasatuz. Eraikina ordenazioz kanpo deklaratu dago; birpartzelazioaren proiektuko 6. planoan eraikina hartzen duen partzelak hartzen duen kalifikazioa kirol-ekipamendua da eta komunitarioa da, 7. planoan partzela nahitaezko zesio bezala seinalatzen da eta 2.ean eraikina ordenazioz kanpo grafiatua agertzen da.

Zirkunstantzia hauek guztiek eraikin honen destinoari buruz areago informatzen dute, birpartzelazio proiektuak bere beharrezko eraisketa agintzen duelarik.

Beraz, alegazioa gaitzetsi dago egin beharra hemen aipatzen den eran.

Zortzigarren Alegazioa.- Alegazio honi erantzen zaizkio halaber Begoña eta Concepción Velasco Aboitiz andreenak ere, hauei ere Udalak diktatuko duen ebazpena bere garaian jakinaraziko zaielarik.

Alegazio honen barruan alegatzaileak adierazi du Udalari aurkeztu zion planeamendu alternatiba Gorporazioarekin aztertzea, arazo hau gure lan honetan sartzen ez denez eta bere edukia ez jakitean, Akordio honetan ez da sartzen.

INSITUTU POLITEKNIKOAREN ALEGAZIOA.- Hirigintz Kudeaketaren Arautegiko 103.4 artikulua arabera, Birpartzelazio Proiektuak portzio hau kontenplatu beharko du zalantza bezala, Administrazio aktibitateak asumitu beharko duelarik dagozkion eskubideen ordezkaritza fiduzioarioa, birpartzelazio espedientearen tramitazioaren ondorioetara, mugak argitu arte interesatuen adostasuna tartean bada, edota zuzenbidez dagozkion prozeduraz.

**ETA
EZ**



BIGARREN.- Zamatete 02-“Velasco” E.U.ko birpartzelazio proiektua behin betiko onartzea, Manuel Blasko García abokartuak erredaktatua.

HIRUGARREN.- Akordio hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Buletin Ofizialean publikatzea eta baita probintzian publikatzen den egunkari batean eta Euskaldunon Egunkarian.

LAUGARREN.- Akordio honen kopia bat Gipuzkoako Foru Dipuitazioko Obra Hidrauliko eta Hirigintzako Sailari bidaltzea.

BOSGARREN.- Jabetza Erregistroan birpartzelazio operazioak inskribatzea.

SEIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 12:30etan batzarraldia amaitutzat eman da honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.